

**ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-
HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA**

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA

Aitor Bereziartua Larrañaga jaunak, presidente gisa eta, Urola Erdi Mankomunitatearen ordezkartzan, hauxe

ADIERAZTEN DU:

Urola Erdiko Mankomunitateko Gobernu-Batzordeak 2019ko apirilaren 11n erabaki du administrazio elektronikoen oinarriko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Urola Erdi Mankomunitateak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoen oinarriko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

ESKATZEN DU:

Urola Erdi Mankomunitatearen atxikimendua, toki-erakunde horren ordezkari naizenez, administrazio elektronikoen esparruko oinarriko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako aipatutako hitzarmenekiko. Hain zuzen ere:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hauek dira aipatutako administrazio elektronikoen zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak:

- Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea
Red de comunicaciones de las administraciones públicas vascas
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak
Servicios de gestión de medios de identificación, autenticación y firma electrónica
- Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE)
Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE)
- Ordainketa-pasabidea.
Pasarela de Pagos

Sin.: Aitor Bereziartua Larrañaga
Urola Erdi Mankomunitateko presidentea